



**LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKOA, TRAFIKOKO ZEHAPEN
PROZEDURAREN ONDORIOZKO EGINTZAK BITARTEKO ELEKTRONIKOEN BIDEZ
JAKINARAZTEARI BURUZKOA**

Vitoria-Gasteizen, 2015eko irailaren 3an, bertaratu dira, alde batetik, **Estefanía Beltrán de Heredia Arróniz**, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ordezkaritzan jarduten duena.

Eta, bestetik, **Eneko Etxeberria Bereziartua**, Azpeitiko Udaleko alkatea, udal horren izenean eta ordezkaritzan.

Duten ordezkaritzan eta hitzarmen hau emateko behar besteko ahalmenarekin,

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGOA.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari dagozkio Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-bideetan ibilgailuen zirkulazio zaintzari lotutako zereginak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Zeregin horien artean sartzen da, besteak beste, trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide segurtasunaren gaineko araudiaren eta xedapen gehigarrien kontrako arauhausteengatik irekitako zehapen-espeditenteak izapidetzea eta abaztea; eta hori, hain zuzen, Trafiko zuzendaritzaren bitartez betetzen da, Segurtasun Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 16.2 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Udal esparruan trafikoaren arloan zehatzeko ahala toki-erakundeei dagokie. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 g) artikuluan arabera eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartu duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 7. artikuluari jarraituz.

HIRUGARRENA.- Azaroaren 23ko 18/2009 Legeak, 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua aldatu duenak, zehapen-arloan aurreikusten du Bideko Helbide Elektronikoa (BHE) egotea; hain zuzen, gidatzeko edo ibilgailu-zirkulaziorako administrazio-baimenaren titularrak diren guztientzat. Dena den, baimenaren titularra pertsona fisikoa bada, Bideko Helbide Elektroniko bakarria esleituko zaio bere borondatez hala eskatzen duenean.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren indarreko 59 bis artikulua aurreikusten du momentuan ematen ez diren salaketen jakinarazpen guztiak eta bideko helbide elektronikoaren dutenen zehapen-prozedurak eragindako gainerako jakinarazpenak, helbide horren bidez 77. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik gauzatzea, zerbitzu publikoak eskuratzeko herritarren sarbide elektronikoari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 28.4 artikulua interesdunari aitortzen dion eskubidea alde batera utzi gabe.

Azaroaren 23ko 18/2009 Legearen Bosgarren Xedapen Gehigarriak aurreikusten du trafikoaren alorrean eskumen betearazleak dituzten autonomia-erkidegoek jakinarazpenak Bideko Helbide Elektronikoaren bitartez egin beharrean beren plataforma informatikoa erabiliz egiteko aukera.

Xedapen horrek ere jasotzen du autonomia-erkidego horietakoak diren udalek beraiekin lankidetzatza-hitzarmenak sinatu ahal izatea, hain zuzen, jakinarazpenak nork bere autonomia-erkidegoko jakinarazpen-plataformen bitartez egin ahal izateko.

Aipatutako 18/2009 Legearen bigarren xedapen iragankorrarekin bat etorritz, apirilaren 7ko 6/2014 Legearen azken xedapenetako lehenaren idazketaren ondoren -lege horrek aldatu baitzuen

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuak onartua)-, udalek 2016ko maiatzaren 25a arte denbora izango dute jakinarazpen elektronikoa egiteko, betiere beren aurrekontu-baliabideek eta baliabide teknikoek ahalbidetzen badute.

LAUGARRENA.- Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, trafikoaren alorrean, Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzako zehapen-prozeduretatik eratorritako jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoaren jakinarazpen-plataformaren bidez egiten dira eta, halaber, plataforma horrek balio izan dezake Autonomia Erkidegoko udalek beren jakinarazpen telematikoak egin ditzaten dagozkien trafikoko zehapen-prozeduretan.

Illo horretatik, Administrado Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak 55. artikuluan aurreikusten du Administrazio Elektronikoaren zerbitzu erkideak -eta horien artean jakinarazpen elektronikoa dago- beste herri-administrazio batzuek erabili ahal izatea, kasuan kasuko lankidetzatza-hitzarmenetan zehazten denaren arabera.

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, alderdi sinatzaileek erabaki dute lankidetzatza-hitzarmen administratibo hau sinatzea, eta hauek dira hitzarmena osatuko duten,

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Xedea.

Lankidetzatza-hitzarmen honen xedea da momentuan ematen ez diren salaketen jakinarazpen elektronikoa eta udal sinatzaileak trafiko-arloan izapidetu behar dituen zehapen-prozedurak eragindako gainerako jakinarazpenak Euskal Autonomia Erkidegoaren jakinarazpen-plataformaren bitartez egin ahal izatea.

BIGARRENA.- Bideko Helbide Elektronikoaren Erroldan kontsulta egitea.

Jakinarazpena egin baino lehen, udal sinatzaileak Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari beharrezkoak diren datuak emango dizkio Bideko Helbide Elektronikoaren Erroldan kontsulta egiteko (aurrerantzean BHE).

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak, kontsulta-eskaria prozesatu eta baliozkotu ondoren, egiaztatuko du kontsultan agertzen diren pertsonak BHEren erroldan sartuta eta, halaber, kasuan kasuko zehapen-prozedurari atxikita dauden.

HIRUGARRENA.- Jakinarazpena ematea eta gauzatzea.

1. BHEren erroldan egindako kontsultaren emaitza baiezkoa bada, udalak jakinarazpena gauzatzeko premiazkoa den informazioa elektronikoki bidaliko du jakinarazpen- plataformara.

2. Udalak jakinarazpenak bidaliko ditu jakinarazpen-plataformara.

3. Jakinarazpena gauzatu da hau kontuan hartuz: Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatuaren 77. Artikuluan

aurreikusitakoa eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30. eta 31. artikulua.

4. Jakinarazpen-plataformaren bitartez, udalak hau egin ahalko du:

- a) Igorritako jakinarazpenei eta horiek dauden egoerari buruzko informazioa eskuratzea.
- b) Gauzatutako jakinarazpenen frogagiriak kontsultatzea.

LAUGARRENA.- Titulartasuna eta ardurak.

1. Eusko Jaurlaritzan Administrazio Elektronikoaren arloan eskuduna den zuzendaritzaren ardurapean jakinarazpen elektronikoaren plataformaren funtzionamendua dago.

2. Trafiko Zuzendaritza eta udal sinatzailea BHEren erroldan kontsulta egiteko informazio-trukeaz arduratuko dira, baita jakinarazi beharreko egintza bidaltzeaz ere.

Hala egokituz gero, aurreko informazioa trukatzeko aldera, udalak bere sistema informatikoei behar dituzten gastuak ordainduko ditu.

BOSGARRENA.- Jarraipen-batzordea.

Hitzarmena egoki aplikatzen dela bermatzeko jarraipen-batzordea sortuko da, EAEko herri-administrazioaren bi ordezkari eta udal sinatzailearen beste bik osatuta.

Batzorde horren ardurak izango dira hitzarmena interpretatzean agertutako zalantzak argitzea, betetzean sor litezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmena nola doan ikuskatzea eta, beharrezkoa izanez gero, hobetzeko proposamenak lantzea.

Era berean, Batzordeak hitzarmenaren eranskinean jasota dauden zehaztapen teknikoak aldatu ahal izango ditu, baita hitzarmenaren xede diren zerbitzuak emateari buruzko protokolo teknikoak garatu ere.

Batzorde hau alderdi sinatzaileetako batek hala eskatzen duenean bilduko da eta, gutxienez, urtean behin.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta auzigaiak.


Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta interpretatu eta garatzeko herri-administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmenari aplikatu dakiekeen ordenamendu juridiko eta administratiboa bete beharko du.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzean sor litezkeen auzigaiak, baldin eta Jarraipen Batzordeak konpontzerik ez badu, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenak aztertu beharko ditu.


ZAZPIGARRENA.- Indarraldia.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean eta 2016ko abenduaren 31 arteko indarraldia izango du. Automatikoki urte naturala luzatuko da baldin eta alderdietako edozeinek berariaz salatzen ez badu, eta hori luzapena hasi baino gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko da frogatzeko moduan.

Eta azaldutako guztiarekin ados daudela eta onartzen dutela frogatzeko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatzen dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.



Estefania Beltran de Heredia Arróniz
SEGURTASUN SAILBURUA



Eneko Etxeberria Bereziartua
AZPEITIKO UDALEKO ALKATEA

